



Frontoian egindako herri bazkarian, giro paregabean bazkaldu zuten iaz dozenaka altzatarrek.

Idi demarik gabe, baina indartsu datoz aurten ere Altzako sanmartzialak

Asteburu honetan martxa hartuta, jaiak ostegunean hasiko dituzte ofizialki Altzan, Txirrita mendi lasterketako antolatzaileen pregoiarekin. Egitarauak, ordea, hilaren 27an joko du goia, jendetsuak izan ohi diren herri bazkaria eta giza proba zita nagusiak izanda.

📷 Maitane Aldanondo Gabilondo

Altzako sanmartzialak ostegunean, hilak 25, hasiko dira ofizialki, poteo, brindis eta pregoiarekin, baina jarduera zerrendari gaur bertan ekingo diote. Kirola da nagusi asteburuan, baina aukeren artean, puska bilketa egingo dute bihar. Trikitilariak lagun, erromeria giroan, jai egitaraua banatu, eta jaietara batzeko deia egingo diete altzatarrei.

2023an, herri bazkaria berreskuratu zuten; urtebete geroago, giza proba; iaz, haur danborrada...urtez urte ekitaldi berriak gehitu zaizkie lehenik zirenei, antolakuntzara ere jende berria batu delako. Altzatarra elkarte eta auzoko gazte talde bat dira muina, baina zenbait ekitaldiren ardura duten beste eragile batzuk ere badira: Bizarrain, eliza, Nao Etxea, Txirrita mendi lasterketako antolatzaileak... Hain zuzen ere, azken

horiek izango dute pregoia esateko ohorea, beraien inplikazioa eta Altza ezagutarazi izana eskertzeko.

Berritasunak izaten dira galdera nagusia, aurten, baina, batugai bat beharrean, hutsune bat da nabarmen-tzekoa. Ekitaldi tradizional bat bazuten sanmartzialak, Santa Ixabel eguneko idi dema zen. Baserritarrek euren egunean antolatzen zuten, baina hala ez egitea erabaki dute. Arrazoi argirik ez dago, baina azken urteetan «pixka bat gainbehera» egin duela dio Lander Sanchezek. Hainbatetan animalistekin arazoak eduki dituzte, idiak ekartzea garestia da, eta, gainera, Altzako idirik ez da izan azken urteetan...

Langari eutsi (edo gainditu)

Horri gehitu behar zaio giza probak izandako arrakasta. Horren prestaketan dabil Sanchez, eta, bere ustez, «giza probarekin naturalki eraldaketa gertatu da». Hala, plaza urtean behin erabiltzetik, entrenamenduak medio, astero erabiltzera pasatu dira. Proba hori, hain justu, egun handi edo jendetsuenean egingo dute: larunbatean, hilak 27. Iaz, sei talde aritu ziren nor baino nor, hiru altzatarak. Aurten, bertako bi baieztatu dituzte, baina hirugarrenaren eta Lezokoaren zain daude. Horrez gain, herri bazkaria, elektrotxaranga, pilota partidak... aukera zabala du egunak.

Sanmartzial hauek iazkoen parekoak edo hobeagoak izatea nahi dute antolatzaileek. Izan ere, askok esan zieten «kristorenak» edo «urtetan, onenak» izan zirela. Gakoa askotariko eskaintza dela uste du Sanchezek. «Festak denontzat dira», beraz, «gauza desberdinak egon behar dira». Gainera, lehia ez zaie falta: Intxaurrendoko Intxaur jaiekin bat egiten dute. Altzatarak animatzea kostatzen bazaie ere, parte har dezaketela edo asetzen dituztela ikusteak «motibatzen» ditu.

Bestelako zailtasunak ere badituzte, ordea. Nabarmenena, lokal propio baten falta. Udalari eskatu diote, baina beti ezezkoa jasotzen dute. «Udaletxea hemen daukagu, itxita dago, aukera eduki genezake hor gordetzeko materiala, mahaiak, toldoak, giza probako egitura... ez digu utzi», azaldu du. ●



OSTIRALA 19

18:30

Gomazko eta larruzko paleta finalak, Altzako frontoian. Ondoren, sari banaketa.

21:30

Afaria, San Martzial paleta txapelketako partaideekin batera, Altzatarra kirol elkartearen.

LARUNBATA 20

09:00

Puska biltzea: Altzako baserrietan barrena ibiliko gara, 2026ko jai egitarauaren eskaintza eginez, Donostiako Musika Eskolako trikitilarien laguntzaz.

10:00

Futbol txapelketa, Altza herri ikastetxean. Altza Futsalaren eskutik, 8-9, 10-11 eta 12-13 urtekoentzako 3x3 futbol txapelketa izango da. Izen ematea 9:30etik 10:00etara.

18:00

Frontenisa, Altzako frontoian.

19:00

Fronteniseko final erdiak, Altzako frontoian.

20:00

Altza Herria VI. pilota txapelketako semifinala, Altzako frontoian.

IGANDEA 21

09:00

IV. Txirrita mendi lasterketa.

12:30-16:30

Puzgarriak haurrentzat, Altzako frontoian.

OSTEGUNA 25

18:00

Poteo hortero: Txintxarri txarangarekin batera, Altzako tabernetan barrena ibiliko gara giro ederrean.

19:00

Txokolate jana haurrentzat, Altzako frontoian ondoan.

19:45

Brindisa, 2025ean eta 2026an Altzara etorri berri diren herritarren alde, San Martzial plazan.

20:00

Pregoia, San Martzial plazan.

Ondoren

Agintarien soka dantza. Ekialdeko barrutiko ordezkariak soka dantza dantzatuko dute, jaiei hasiera ofiziala ospatzeko.

20:15

Txosnaren irekiera.

20:30

Buruhandiak Altzako kaleetan zehar.

21:00

Paula Guereñuren eta Ander Santxez Reyren *Atari aurreko matxinada* antzerkia, Altzako frontoian.

OSTIRALA 26

16:00

Buruhandi tailerra, San Martzial plazan.

Ondoren

Tailerrean egindako buruhandiekin kalejira.

17:00

Dantza modernoa, Pauso-K Dance Studio taldearen eskutik, San Martzial plazan.

18:30

Altza Herria VI. pilota txapelketako finala, Altzako frontoian.

19:00

Apar festa, San Martzial plazan.

Toka eta bote txapelketa, Bodega taberna inguruan.

19:30

Fronteniseko finalak, Altzako frontoian.

20:30

Afaria, Altzatarra kirol elkartearen.



21:00

Bingo musikatua, txosnagunean.

22:00

Danborrada, Pasai txarangak lagunduta.

00:00

San Martzial ereserkiaren abestea, San Martzial plazan.

00:15

Iñigo Garcia DJ-a, San Martzial plazan.

LARUNBATA 27

11:00

Artisau azoka, Plaza Gorrian.

Giza proba desafioa, Altzako probalekuan.

12:00

Fabrika magikoa, Plaza Gorrian. La Mas Kukiren eskutik, haur eta nerabeek euren poltsa, txapak eta askoz gehiago diseinatu eta sortzeko aukera izango dute.

12:30

Zumba saioa Riva tabernaren eskutik, Riva taberna inguruan.

14:30

Bazkari herrikoia, Altzako frontoian.

17:00

Aurpegi margoketa, Maider Ferreira profesionalaren eskutik, San Martzial plazan.

Elektrobuika elektrotxaranga, txosnan hasita, Altzako kaleetan zehar.

Techno eta rap festa, Bodega inguruan.

18:00

Showtime taldearen dantza emanaldia, Plaza Gorrian.

19:00

Buruhandiak, Altzako kaleetan zehar.

22:30

Kontzertua San Martzial plazan: Lurrin.

00:00

Zezensuzkoa Altzako kaleetan zehar.

00:30

Sutargi erromeria, San Martzial plazan.

IGANDEA 28

09:00

Diana Donostiako txistulari bandarekin, Altzako kaleetan zehar.

10:00

Auto klasikoen erakusketa, San Martzial plazan.

11:00

Haur danborrada, San Martzial plazan.

Nao Etxea abesbatzaren emanaldia, San Martzial parrokian.

Patata tortilla eta postre lehiaketa, Altzako frontoian.

12:00

Urdaiazpiko mozketa, txosnagunean.

12:30

Herri kirolen erakustaldia, Plaza Gorrian.

15:30

Aurpegi margoketa eta txapa tailerra, Riva inguruan.

Mus txapelketa, Bodega inguruan.

18:00

Sagardo eguna, San Martzial plazan.

18:30

Casares Kultur Etxearen eskutik Pausa zirkua, Plaza Gorrian.

19:00

Buruhandiak, Altzako kaleetan zehar.

20:30

Radio Rebelederen emanaldia, San Martzial plazan.

ASTELEHENA 29

20:00

Salbea, San Martzial parrokian.

ASTEARTEA 30

11:00

Meza Nagusia Altzako deun gorenaren omenez, San Martzial parrokian.

12:00

Haurrentzako jolasak, Altzako frontoian.

17:30

Euskal dantza emanaldia, Herri Ametsa dantza taldearen eskutik, Plaza Gorrian.

20:00

Sardina jatea, San Martzial plazan.

ASTEAZKENA 1

12:00

Toka txapelketa jubilatuentzat, Nao Etxean.

17:30

Nao Etxeko txapelketen sari banaketa.

OSTEGUNA 2

10:00

Meza Nagusia Santa Ixabel egunean, San Martzial parrokian.

Ondoren

Ogitartekoa Nao etxearen eskutik, San Martzial plazan.